

MARKINA-XEMEIN / Errumania, hango baten ahotik kontatuta

Bihar iluntzean Oana Tampanariu ekonomialari eta itzultzaileak bere herrialdeari buruzko kontuak kontatuko ditu.

M. IBAIBARRIAGA ZUBIKARAI. Oana Tampanariu ekonomialari eta itzultzaile errumaniarra da. Bera izango da bihar Uhagon Kulturgunean egongo den berbaldia eskainiko duena.

Antolatzaileek adierazi dutenez, hitzaldian hamengo jendeari bere herrialdeari buruzko beste irudi bat eskaintzen saiatuko da Tampanariu, beste aurpegi bat erakusten. "Telebistako barrietan agertzen ez den Errumania ezagutzeko aukera eskainiko da, diote. Herrialdearen historia, ezaugarri kulturalak, aberastasun naturalak eta beste hainbat kontu azalduko ditu errumaniarrak.

Hizkuntza askoko herria

1999an etorri zen Oana Tampanariu Euskal Herrira bizitzera. Hasieran Errumaniara gehiagotan joango zela uste bazuen be, gaur egun "Gabonetan eta Aste Santuan bakarrik bueltatzen dela dio.

Sei hizkuntza berba egiten daki Tampanariuk: errumaniera, alemana, gaztelera, frantsesa, ingelesa eta hungaroa. Errumaniar hizkuntza asko berba egiten direla dio. Horren arrazoia han bizi diren 18.000 etnia ezberdinak direla azaldu du. "Horren ondorioz dakizki jende gehienak hizkuntza asko, dio berak.

Errumaniarren "ospe txarra

Hitzaldian, errumaniaren beste alde bat erakutsiz "dagoen irudia kendu nahi duela dio. Errumaniarrek hamen "ospe txarra daukatela nabarmendu du. "Askotan, gainera, beharra topatzeko be oztopo bihurtzen da jendeak daukan aurreiritzi hori, dio Tampanariuk komunikabideetan egindako elkarrizketa batean. Bera be, "errumaniarra izateagatik baztertu izan dutela azaltzen du.

Berbaldian "beste aurpegi bat erakusten saiatuko da, eta ahal dela aurreiritzi horiek baztertzen laguntzea izango du helburu.

Uhagonen, 21:30ean

Oana Tampanariuk emongo duen hitzaldia bihar izango da, 21:30ean, Uhagoneko lehenengo solairuko aretoan.

Egitaraua

- Urriaren 22a: Hitzaldia. Errumania ezagutuz hitzaldia emongo du Oana Tampanariuk.
- Urriaren 24a: Pelikula. 4 meses, 3 semanas, 2 dias pelikula emongo dute Uhagon Kulturgunean, 19:00etan.
- Urriaren 29^a: Pelikula. La muerte del Sr. Lazarescu pelikula emongo dute Uhagon Kulturgunean, 21:30ean.
- Urriaren 31: Jaialdia. Errumaniar jaialdia egongo da 18:30etik aurrera Uhagon Kulturgunean. Janari dastaketa egongo da, eta ostean, Moldaviako musika talde batek Errusiako musika tradizional emanaldia eskainiko du.
- Azaroaren 11: Irakurleen txokoa. Errumaniako idazle baten liburua irakurri eta aztertuko dute herri bibliotekan.

